

# Alternatibak

## **Europako Batasun solidarioa**

### sortzeko

*La deuda o la vida* liburutik hartua

**Eric Toussaint**

# Nor ari da irabazten krisiarekin?

Krisiaren jatorrian dauden finantza erakundeak aberasten eta espekulatzen ari dira estatuen zorrarekin...

- Gobernuburuen
  - Europako Batzordearen
  - NDF Nazioarteko Diru Funtsaren
  - EBZ Europako Banku Zentralaren
- Laguntza estimagarriaz baliatuz

# Shock doktrina

Enpresa pribatuen zuzendaritzek egoera baliatzen dute herritar gehienon eskubide ekonomiko eta sozialen kontra egiteko

**Zer zerikusi du lan arautegiak bankuen zuloarekin?**

# Arazoa diru sarrerak dira

Defizit publikoaren jaitsiera ez da egin behar gastu sozialak murriztuz baizik eta:

- Zerga sarrerak handituz: kapitalaren, finantza mugimenduen, jabetzaren eta aberatsen sarreren gaineko zergak igoz
- Iruzur fiskal handiaren kontra ekinez

# Gastu publikoak

- Murriztu beharrekoak dira:
  - armagintzako gastuak
  - gizartearentzat baliogabeak diren gastuak
  - ingurumenarentzat kaltegarria diren gastuak
- Gastu soziala handitu behar da, batez ere depresio ekonomikoaren eraginak baretzeko

# Beste Europa bat posible da

Aukera ederra dugu logika kapitalistarekin  
amaitu eta gizartean aldaketa sakonak  
eragiteko

- Produktibismoarekin hautsi
- Arlo ekologikoa kontuan hartu
- Modu zapaltzaileekin amaitu (arrazakeria,  
patriarkatua, etb.)
- Ondasun amankomunak bultzatu

# Baina indarra behar dugu

Krisiaren kontrako mugimendua sortu behar da, Europa mailan zein eskala lokalean, justizia sozialean eta klimatikoan oinarritutako irtenbideak abian jartzeko

**Horretarako indar harremanean irabazi behar dugu**

# Aurrera egiteko 8 norabide

1. Zor publikoaren auditoria egin, zilegia ez den zatia baliogabetzeko
2. Austeritate planak gelditu
3. European benetako justizia fiskala ezarri, eta aberastasunaren banaketa justua egin
4. Finantza merkatuak arautu



# Aurrera egiteko 8 norabide

5. Bankuak arlo publikora pasa herritarren kontrolarekin
6. 1980tik pribatizatutako enpresa eta zerbitzuak sozializatu
7. Lanaldiak nabarmen murriztu enplegua sortzeko, era berean soldatak eta pentsioak handituz
8. Elkartasunean oinarritutako Europako Batasuna demokratikoki birfundatu

# 1. Zor ez zilegia

- Estaturen zor publikoaren zati handi bat ez da zilegia
- Gobernuek nahita ezarritako politika batzuen emaitza da
- Klase sozial bat pribilegiatzea erabakita gizarteko ganierako kalterako

# 1. Zor ez zilegia

- Zenbait zerga murriztu ziren:
  - Pertsona fisikoen irabazi handien gainekoa
  - Jabetzaren gainekoa
  - Sozietate pribatuen irabazien gainekoa
- Horrek zor publikoa handitu du
- Gainerakoen zerga-karga handitu egin da
- Finantza erakundeak erreskatatu dira

# 1. Zor ez zilegia

2008tik aurrera Banku Zentraletatik jasotako diru saldoa espekulatzeko eta botere publikoei mehatxu egiteko erabili zuten bankuek

**irabaziak handitzeko estatuek ordaindu beharreko interesak puztuz**

# 1. Zor ez zilegia

Argi hitz egin behar da zor ez zilegi hauek baliogabetzearen alde.

Beraien kostua **errudunek eta krisiarekin aberastu direnek ordaindu behar dute**

## 2. Austeritate planak gelditu

- Kaleratzeak enplegu publikoan
- Soldaten izozte/murrizketa
- Premiazko zerbitzu publikoetan eta babes sozialean murrizketak
- Jubilazio adinaren igoera
- Zerga ez zuzenen igoera (BEZa), bereziki bidegabeak
- Enpresa publiko konpetitiboen pribatizazioak

## 2. Austeritate planak gelditu

Neurri hauek krisiaren ondorioak larriagotzen dituzte, eta batez ere kapitala dutenen interesak babesteko hartzen dira

**Soldatapekoak, desenplegatuak eta etxe umilenak ari dira ordaintzen estatuek hartzekodunak gizentzen jarraitzeko**

# 3. Justizia sozial europarra

- EBn 2000 eta 2008 urteen artean errentaren gaineko tasa altuenak eta sozietateen gainekoak jaitsi egin zituzten 5 eta 8,5 puntu hurrenez hurren
- Ehundaka mila milioi euroko opari fiskal hauek batez ere espekulaziora eta aberatsenen metaketara bideratu dira



# 3. Justizia sozial europarra

- Fiskaltasunaren erreforma sakona (aberatsenen sarrerak eta jabetza murriztu herritarren gehienena handitzeko)
- Armonizazio fiskala Europa mailan, *dumping* fiskalarekin amaitzeko
- Diru sarrerak handitu ezinbestekoak diren ondasun eta zerbitzuen prezioak murrizteko

# 3. Justizia sozial europarra

- EBk finantza mugimenduen gaineko zerga ezarri behar du
- Zerga iruzurrak medio ugari lapurtzen dizkio kolektibitateari eta enpleguaren kontra eragiten du
- Finantza zerbitzuei dagozkien kopuruak eman behar zaizkie, iruzur honen kontra modu eraginkorrean egin dezaten

## 4. Finantza merkatuak arautu

Espekulazioa mundu mailan sortzen den aberastasunaren halako lau da, eta notazio agentziak globalizazio neoliberalaren parte interesatua dira. Hortaz:

- Zor publikoarekin, monetarekin eta elikagaiekin espekulatzea debekatu behar da
- Notazio agentzia publikoa sortu behar da

# 5. Banku publikoa

- Estatuek aktibitate ekonomiko eta finantziarioa kontrolatu eta bideratzeko gaitasuna berreskuratu behar dute
- Era berean instrumentuak izan behar dituzte inbertsioak egin eta gastu publikoa finantzatzeko,

**instituzio pribatuekiko eta atzeritarrekiko dependentzia ahalik eta txikiena izan dadin**

## 6. Enpresa pribatizatuak sozializatu

Azken 30 urtetan gobernuek sektore pribatuari ekonomiaren bloke osoak eman dizkiote ekonomia erregulatzeko gaitasun guztiari muzin eginez

- Ondasun publiko hauek lan kolektiboaren emaitza dira, eta esku publikoetara itzuli behar dute
- Enpresa publiko berriak sortu eta zerbitzu publikoak herritarren beharretara egokitu behar dira

# 7. Lanaldia nabarmen murriztu

- Krisiari erantzun egokiena aberastasuna beste modu batera banatzea da
- Sortzen den aberastasunetik soldatetara doan zatia nabarmenki txikitu da azken hamarkadetan
- Hartzekodunek eta enpresek eskuratzen zituzten mozkin joriak espekulaziora bideratzen zituzten bitartean

# 7. Lanaldia nabarmen murriztu

Lanaldia soldata murriztu gabe jaitsiz:

- Jendearen bizi-kalitatea hobetzen da
- Enplegua eskura dezakete nahi dutenek
- Kontsumismotik aldendutako beste bizitza erritmo bat ezartzen laguntzen da
- Pertsonen parte hartze aktiboa errazten da arlo politikoan, ekintza boluntarioetan eta kultur sorkuntzan

## 8. EB birfundatu

- Lisboako Itunaren 63 eta 125 artikulua deuseztu kapital mugimenduen kontrola eta arazoak dituzten estatuak laguntzen galarazten dutelako
- Hazkunderako eta Egonkortasunerako Ituna bertan behera utzi
- Egungo itunak benetazko prozesu konstituziogile demokratiko batetik sortutakoekin ordezkatu



## 8. EB birfundatu

- EB-k EBZ gobernuen gainean ezarri zuen, herrien gainean beraz
- Hori giza gaiak finantzen menpe jartzea da, kontrakoa egin behar denean
- Elkartasunean eta lankidetzan oinarritutako Europa batek konpetentzia eta lehiaketari bizkar ematea ahalbidetu behar du, beherantz tiratzen dutelako

## 8. EB birfundatu

- Logika neoliberalak krisira ekarri gaitu eta bere porrota agerian jarri du
- Adierazle sozialak beherantz bota ditu
- Krisiari onura atera dioten urriek beste gehienen eskubideak zapalduz egin dute

## 8. EB birfundatu

- Estatuen arteko lankidetzan eta elkartasunean oinarritutako beste Europa batek izan behar du lehentasun
- Zerga politikek ez dute bateratuak izan behar, koordinatuak baizik, goranzko emaitza lortzeko
  - Politika globalak ezarri behar dira Europa mailan, inbertsio publiko masiboak eginez enplegu publikoa sortzeko ezinbestekoak diren arloetan

# Europa demokratizatu berria

- Justizia fiskala eta soziala indartu
- Desarmea tea gastu militarrek nabarmen murriztu
- Energia aukera berriztagarriak bultzatu
- Genetikoki eraldatutako organismoak debekatu
- Emigrazio hautagaien kontrako gotorleku politikekin amaitu (Hegoaldearekin elkartasunean oinarritutako lankidetzan)